

Elgoibar 1341. zenb.
XXXI. urtea - 2024/09/27



Iberiar penintsula, bizikletaz

Enekoitz Elorza, zikloturista



TERTULIAK programa

euskaraz berba egiteko beste aukera bat

Astean ordubete, dakizuna hobetzeko eta ez dakizuna ikasteko.
Eta gainera, doan! Euskaraz jarduteak ez daukalako preziorik.

Animatu eta eman izena urriaren 11 baino lehen!

Izena emateko eta informazio gehiago:

Elgoibarko Izarra (943 741 626) / elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus

AEK euskaltegia (607 601 423) / elgoibar@aek.eus

Udal Euskaltegia (943 742 731) / udaleuskaltegia.elgoibar@debabe.eus



Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

barren@elgoibarkoizarra.eus

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Jose Ramon Cabrera, Ane Kortaberria, Asier Guisasola, Maialen Sanchez, Lere Kerexeta, Nagore Cancio **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



facebook.com/barrenaldizkaria



twitter.com/barreneus



instagram.com/barrenaldizkaria



youtube.com/@Elgoibarrennet

Ane Astiazaran

Itzultzailea

Gure borrokak



"Gizartea globalki hartuta, non kokatzen dira bertsoan oholtza hartzen duten iritzi horiek?"

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako saioaren testuinguruan, bertsoaritzari buruz ari ginen aurreko astean, eta harriduraz jaso nuen bertsoan aritzen den lagun baten komentarioa. Txapelketak ikustera joaten ez dela aitortu zuen, aspertu egiten dutelako errepikatzen diren gaiak, hartzen diren ikuspuntuek; ba omen dakigu bertso saioa hasi aurretik zer defendatuko duen bertsoari bakoitzak, hain zuzen, guztiek ikuspegi berbera defendatzen dutelako. Ez zaio, agian, arrazoirik falta. Baina, esan al dezakegu plazetan entzun ohi ditugun ikuspuntu bateratu horiek bertso mundutik aterako bagenitu pentsamendu bakar bat osatzen dutela? Gizartea globalki hartuta, non kokatzen dira bertsoan oholtza hartzen duten iritzi horiek?

Euskal musikari buruz ari zen batean, Gorka Urbizuk esan zuen *euskal* den oro ezin dela inoiz *mainstream* edo joera nagusia izan, hain zuzen, *euskal* izateak *mainstream* horren kontra egitea esan nahi duelako. Gure lurraldeetako gehiengoaren kultura espainol eta frantsesari, bizimodu kapitalistari edota pentsamendu heteronormatiboari, horiei guztiei aurre euskaraz eta bertsoan ezinbestean egiten da ertzetatik (nahiz eta beti egongo diren ertzagoak).

Batzuetan iruditzen zait kritiko izate horretan kritikoegi izateko joera dugula, eta gure osasun mentalaren izenean gure borrokak aukeratzen ditugun era berean aukeratu behar ditugula kritiko izateko espazioak ere.

BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Urriaren 13an, Donostiara

Oinarrizko txirringularitzak ez du oraintxe garairik onena bizi Gipuzkoan. Gipuzkoako trafiko arduradunek jartzen dizkiguten oztupoekin lan egitea ezinezkoa da, eta gogaitua eta etsita, Gipuzkoako Txirringularitza Federazioko zuzendaritzak dimisioa eman zuen uztailean. Egoera desblokeatzeko, mahai baten bueltan batu eta arazoari elkarrekin konponbide bat emateko eskatu eta eskatu ari dira federazioko lagunak agintariei, baina alferrik momentuan. Denboraldia amaitu da, eta zer izango den ez dakigu aurrerantzean. Kirol hau maite dugulako ari gara boluntarioak klubetan lanean, buru-neke handiak hartuta, eta zientoka dira egunero-egunero ahalegin betean entrenatzen ari diren gure gazteak ere. Batez ere haiengatik gaude hemen, eta haiengatik batuko gara urriaren 13an Donostian 'Konponbidea' lelopean egingo den manifestaziora ere. 11:00etan irtengo gara belodromo paretik eta udaletxera arteko bidea osatuko dugu, eta lerro hauen bidez, parte hartzera deitu nahi zaituztegu txirringularitza eta oro har kirola maite duzuen guztiak.

**Mendaroko Txirringulari Elkarte eta
Elgoibarko Lagun Taldea**

Israelek, Ziad Mohammad Al-Dalu mediku palestinarra hil du torturapean

Gazako Osasun zerbitzuek jakinarazi dutenez, Ziad Mohammad Al-Dalu mediku palestinarra Israelgo espetxe batean hil

da, tortura bortitza jasan ondoren. Gaza hiriko Al-Shifa ospitaleko barne medikuntza sailaren zuzendaria zen Ziad Mohammad, eta martxoaren 18an atxilotu zuen Israelgo Armadak, ospitalean lanean ari zela. Hilketan hau nazioarteko lege eta akordioen aurkakoa da, lan humanitarioa egiten ari den osasun langileari eraso egiteagatik.

Gazako osasun zentro nagusia zen Al-Shifa. Martxoaren 18an ospitalearen aurka egindako sarekadan dozenaka osasun langile atxilotu zituzten israeldarrek. Orduetik atxilotuta zuten Ziad Mohammad Al-Dalu, eta torturapean jasandako zaurien ondorioz hil da. Sionistek gutxienez 60 palestinar hil dituzte torturapean azken hamaika hilabeteetan. Ez da torturatuta hil duten lehen medikua, gutxienez hiru mediku hil dira Israelgo espetxeetan urriaren 7tik, antzeko egoeran.

Armada sionistak sistematikoki izan du jomugan Gazako osasun sistema, izan azpiegiturak zein bertako langileak. Gutxienez 1.151 osasun langile hil ditu Israelek urriaren 7tik, eta 300dik gora bahitu, Palestinako Osasun Ministerioak jakinarazi duenez. Osasun langileen aurkako eraso sistematikoa eta berariazkoa dela salatu du Osasun Ministerioak. Gerra krimena da beren lana egiten ari diren osasun langileei eraso egitea, eta ministerioa behin eta berriz eskatzen ari da nazioarteko komunitateak Israel erantzule jo dezala, zibilen eta osasun langileen aurkako erasoengatik. Genozidioari stop!

A.I.Z.

EZ GALDU AUKERA PAREGABE HAU, AZKEN UNITATEAK!



%50 poliester eta %50 kotoia duten izarak 12 €-tik aurrera

%100 kotoia duten izarak 19 €-tik aurrera

Bisita gaitzazu!

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com



Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus



943 744 112



688 655 658



Trenbide kaleko edukiontzien askotan bi aparkaleku kentzen dituzte:

"Edukiontziak Trenbide kaleko aparkaleku batean egoten dira normalean, baina batzuetan ez dira ondo kokatuta egoten, eta bi aparkaleku kentzen dituzte. Elgoibarren aparkatzea ez da erraza, eta horrelako detailak kontuan hartzea eskertuko genuke".



Maalako parkean uso gehiegi egoten dira:

"Maalako parkearen estalpea usotoki bihurtuta dago. Uso asko egoten dira bertan, eta kaka egiten dute. Estruktura bera uso-zirinez beteta dago, eta lurra ere zikin-zikin egoten da. Jendea ere zikindu izan da. Usoek gaixotasunak transmititzen dituzte, eta hainbeste ume egoten den lekuan horrelako zikinkeria batzea ez da batere txukuna. Usoen ugaritzea kontrolatzeko neurriak hartu beharko lirateke".



Herria txukun eta garbi mantentzea herritar guztion ardura dela gogorarazi du

Udalak: "Azken egunetan Aita Agirre inguruan kartoiekin jolasten ibiltzen dira umeak, eta etxeratzen direnean ingurune guztia zikin-zikin lagatzen dute. Udaletik eskatu nahi dugu denon artean lan egitea, herriko kale eta inguruak txukun mantentzeko".



Haizea Emakume Taldeak jaso du aurtengo Lila Saria



Haizea Emakume Taldeak jaso du hirugarren Lila Saria, emakumeen eskubideen defentsan eta sustapenean egindako ia 40 urteko ibilbidearen aitortzan. Ia lau hamarkadatan zehar, Haizeak jarduera sorta zabala garatu du Elgoibarko emakumeen bizi-kalitatea eta ongizatea hobetzeko. Lorpenik aipagarrienen artean, elkarteak eman zituen trebetasun praktiko eta teorikoei buruzko prestakuntza-tailerrak aipatu zituzten sari emaileek, hala nola, artea eta artisautza, finantza-hezkuntza eta

informatikari buruzkoak. Horien bitartez taldeko kideen autonomia indartu zutela azpimarratu zuten. Halaber, osasunari, genero-indarkeriari eta lan-eskubideei buruzko hitzaldiak eta ekitaldiak ere antolatu ditu Haizeak urteotan, emakumeen eguneroko kezka jorratuz eta erronka pertsonal eta profesionalei aurre egiteko tresna erabilgarriak eskainiz. Haizeakook oroigarria eta 500 euro jaso dituzte saritzat. Sari banaketaren ostean, Beatriz Egizabal umoristak aurkeztutako Magma Mia bakarriketa ikuskizunaz gozatu dute ikusleek.

Zirardamendi-Aiastia fronte-lerroan hildako gudariak omendu dituzte



1936ko irailaren 25ean Arana Goiri batailoiko hamalau euskal gudari hil zituzten Zirardamendiko frontean, Mola jeneralaren tropen kontrako liskarretan, eta horiek gogoratu zituzten dokeman, Aiastian. Murkaiupe pilotalekuaren atzean landatuta

dagoen Gernikako arbolaren kimuari bisita egin eta gero, Zirardamendira joan ziren parte hartu zuten lagunak. Zirardamendin hil zituzten soldaduen senideez gainera, hainbat herritarrek eta erakundeetako ordezkariak hartun zuten parte omenaldian.

Stock azoka antolatu du Txankakuak datorren asterako



Txankakua merkatari elkarteak stock azoka antolatu du datorren asterako. Urriaren 3an, 4an eta 5ean egingo dute. Establezimenduek denda atarira aterako dituzte euren produktuak, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Egun horietan erosketak egiten dituzten herritarren artean 400 euro zozkatuko dituzte, 100 euroko erosketa bonotan.

'Hausnarrean' liburuaz hitz egingo du Josebe Blancok urriaren 3an



Karakate Bizirik plataformak antolatuta, *Hausnarrean*, *ardiek egin naute artzain* liburuaz hitz egingo du Josebe Blanco gaztagileak, datorren egunearan. Artzaina da Blanco, eta eguneroko batean jaso ditu bere bizipenak, artzaintzarekin lotuak zein aktualitatetik abiatutakoak. Kultur Etxean emango du hitzaldia, 19:00etatik aurrera.

Jone Olaizolak zinegotzi kargua laga du



2021ean izendatu zuten Jone Olaizola EH Bilduko zinegotzi, eta orain kargua lagako du, arrazoi pertsonalengatik. Bere lekukoa Joseba Osorok hartuko du urriko osoko bilkuran. Elgoibarko EH Bilduk eskerrak eman dizkio Jone Olaizolari Udalean egindako lanagatik eta EH Bilduren proiektu politikoari egindako ekarpenagatik.

Azken zapatuko feria egingo dute bihar

Traileko azken zapatuko feria egingo dute bihar, Debemenek antolatuta. 09:00etatik aurrera Elgoibarko baserrietako eta Artalde artisau elkartekoen produktuak egongo dira salgai. 11:00etan, berriz, Lagun Taldeak txosna zabalduko du eta herriko harategietako osagaiekin prestatutako pintxoak salduko dituzte. Atxutxiamaikaren eskutik umeentzako tailerrak egongo dira, eta oraingoan sagarrarekin espermentatuko dute, Lizagasarreko kideekin elkarlanean. 12:00etan izango da, Kultur Etxe aurrean. Ganadu erakusketa ere egingo dute, eguerditik aurrera.

Gaueko zerua ikusteko irteera antolatu dute urriaren 4rako

Gure natura ezagutzeko egitasmoaren barruan gaueko zerua ezagutzeko irteera antolatu dute Morkaikok, Baso Biziak-ek eta Atxutxiamaikak, Udalaren laguntzaz. Urriaren 4an izango da. 19:30ean elkartuko dira Mintxetan, eta Karakatera igoko dira, kotxez. 14 urtetik gorakoentzako irteera da. Antolatzaileek linterna eta prismatikoak eramateko gomendatu dute. Izena emateko: labur.eus/GNE24

2025erako ordenantza fiskalak %2,6 igotzea onartu du Elgoibarko Udalak

Elgoibarko Udalak 2025erako Ordenantza Fiskalak onartu ditu Osoko Bilkuran, EAJ-PNV eta PSE-EEren aldeko botoekin. EH Bilduk kontra bozkatu du. Salbuespenak salbuespen, abuztuko KPIaren arabera igoera aplikatuko dute datorren urterako, eta beraz, %2,6 igoko dira zergak 2025ean. Kirol Patronatuari dagokionez, zerbitzuen prezioak banan-banan egokitu dituzte. Azaldu dutenez, Kirol Patronatua diru-sarrera propioek finantzatzen zuten lehen %60an, eta Udalak %40an laguntzen zuen. Azken urteotan, zerbitzuen lizitazioetan izandako hobekuntzen ondorioz, portzentaje horiek inbertitu egin dira, eta Udalaren helburua lehengora itzultzea da datozen lau urteotan, Patronatua "buruaskeago" izan dadin. Hori dela eta, prezioen egokitzapenak modu independentean egingo dira. Zaborraren gaineko tasa, berriz, Debabarreneko Mankomunitatearen jarraibideen arabera egokituko dute, eta %8,5 igoko da. Ordenantza berriek udalerraren finantza-egonkortasuna bermatzeko, zerbitzu publikoen kalitatea bermatzeko eta zerga-politika ekitatiboa aplikatzeko ahalegina islatzen dutela nabarmendu zuten Atsegin Uzuriaga Ogasun zinegotziak.

Hobarien artean, % 100eko hobari bateragarria onartu dute Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari (OHZ) dagokionez, energia berriztagarriak ezartzen dituzten familia ugariantzat, eta %50eko hobaria mantendu dute Bizigune Etxebizitza Hutsen Programari atxikitako etxebizitzetarako. Era berean, 65 urtetik gorakoek deskontuak izango dituzte Herriko Antzokiko sarreretan.

Uzuriagak talde politiko guztien lankidetzat



eskertu du negoziazio prozesuan, erabaki fiskaletan adostasunak lortzearen garrantzia azpimarratuz: "Aurten urrats garrantzitsua eman dugu udalerraren finantza egonkortasuna eta zerbitzu publikoen kalitatea bermatzeko" Bere ustez, elkarrekin lan eginez bakarrik eraiki daiteke Elgoibar hobea guztiontzat.

EH Bildu, kontra

EH Bilduk kontra bozkatu du, eta azaldu du bere arrazoia. Alderdi ezkertiarrek hiru zutabetan oinarritu zuten zergen gaineko bere proposamena: Progresibitatean sakontzen duen hobari-taula bat zaborren eta kirodegiko tasetarako; trantsizio klimatikoarekin lotutako hondakin politika eta etxebizitza-politika. "Proposamen horiek gobernu taldeari (EAJ-PSE) aurkeztu genizkion Antolakuntza Batzordean, negoziatzeko eta akordio batera iristeko helburuarekin. Gobernu taldeak ez du horietako bat bera ere eztabaidatu nahi izan eta, beraz, ezin izan dugu akordiorik lortu elgoibartarren bizi-kalitatea hobetzeko guretzat funtsezkoak diren ardatz horien inguruan".

Urriaren 6ko sokamuturrak aldaketak eragingo ditu trafikoan

Elgoibarko Udalak urriaren 6an sokamuturra dela-eta trafikoan egingo diren aldaketen berri eman du. Sokamuturra 08:00etatik 10:45era izango da, bi sektoretan banatuta. 08:00etatik 09:30era, honako kale hauei eragingo die: San Frantzisko, Kalebarren plaza, Errosario eta San Bartolome. 09:30etik 10:45era, berriz, hauei: Errosario, San Bartolome, Kalegoen Plaza,

elizako elizpea, Bolatokiko Parkea, San Ignazio eta Santa Ana. Sokamuturrak irauten duen bitartean, aipatutako kaleak zirkulaziorako erabat itxita egongo dira, eta sektore bakoitzeko jarduera amaitutakoan irekiko dituzte berriro. Udalak merkatarien eta bizilagunen laguntza eskatu du eremu horietan dauden denda eta atarietako beirazko eremuak babesteko.



|| 'Zilarrezko haria': Bizitza aldatuko dizun deia

Bakardadean bizi diren adinekoi konpainia egiten dien elkartea da Nagusilan, eta egiteko horren barruan hainbat ekimen antolatzen dituzte. Egoitzetan, Eguneko Zentroetan eta etxeetan ematen dute zerbitzua, eta baita telefonoz ere, *Zilarrezko Haria* ekimenaren bidez. 2000. urtean sortu zuten ekimena, hautatua ez den bakardadean bizi diren lagunekin hitz egiteko, haiekin egon eta konfiantzazko giro bat eskaintzeko. Ez da aholkularitza edo kontsulta teknikoan zerbitzua, baina saiatzeko dira boluntarioen eta deitzaileen arteko konexio puntuak aurkitzen. "Esaterako, pilota gustuko duen deitzaile bati saiatzeko gara boluntario pilotazale bat jartzen, pilotaz hitz egin dezaten", azaldu du Joserra Ezenarrok,

Elgoibarko Nagusilaneko arduradunak. 113 boluntarioek dihardute zeregin honetan, eta Joserra bera da horietako bat. Aurten 25.000 dei inguru atenditu dituzte guztien artean. Dei bakoitzak 15-17 minutuko iraupena izaten du, eta zazpi mila dei baino gehiago jaso dituzte. "Bakarrik bizi diren pertsonen hitz egiteko lagun bat eskaintzen diegu". Boluntarioek ez daukate gutxieneko ordu kopuru bat sartu beharrik, eta norbere aukeren arabera erabaki dezake. Inplikazioa, baina "satisfazio handia" ematen duen zeregina dela azaldu du Ezenarrok. Parte hartzeko 900 713 771 telefonora deitu behar da.

Ekimen honen berri emateko 12 orduko maratonia egingo dute urriaren 3an Donostiako Miramar jauregian.

09:00 Ateak irekitzea eta dei solidarioen hasiera.

10:00-11:30 Ekitaldi instituzionala.

11:30-13:00 'Bizikletan adinik ez' ekimena, Kontxako pasealekuan.

11:30-11:40 Nagusilanen animazio musikala.

11:40-11:55 Hondarribiko San Gabriel egoitzako egoiliarren bisita eta testigantzak.

11:55 Nagusilanen animazio musikala.

12:05 'Coro de colores' ekimenaren aurkezpena, Goienetxe Fundazioarekin elkarlanean.

11:55-12:05 Nagusilanen animazio musikala.

12:30-12:50 Nagusilan Arabako boluntarioen esperientzia eta ekimenaren aurkezpena.

12:50-13:30 Onda Cero irratiaren zuzeneko emisioa, Miramar jauregitik.

12:50-13:15 Adinberriren Hariak estrategiaren gakoak ezagutzeko aurkezpena.

13:15-13:30 Zilarrezko Haria tailerra.

13:30-15:00 Nagusilanen animazio musikala.

15:00-15:30 'Nahi ez den bakardadea' gaiaren inguruan antolatutako kontakizun laburren lehiaketako irabazleen irakurketa.

15:30-16:00 Matia Fundazioaren Iza egoitzan burutzen den 'Poesia visual' ekimena.

16:00-16:15 Nagusilanen animazio musikala.

16:15-16:30 'Bizikletan adinik ez' ekimenaren aurkezpena.

16:30-18:00 'Bizikletan adinik ez' ekimena, Kontxako pasealekuan.

16:30-17:30 Real Sociedad taldeko kideekin tailerrak, jolasak... Taldeko jokalariei beterranoek hartuko dute parte.

17:30-17:45 Aurkezpena: 'Bakardadea: osasunerako arrisku faktore garrantzitsua'. J.F. Marti Masso EHUko neurologiako katedradunarekin.

17:45-18:00 Zilarrezko Haria tailerra.

18:00-18:15 Nagusilan Legazpi taldearen 'Legazpi loratzen' proiektuaren aurkezpena.

18:15-18:30 Nagusilan Bizkaiko boluntarioen esperientzia eta ekimenaren aurkezpena.

18:30-18:45 Nagusilanen animazio musikala.

18:45-19:15 Nagusilan abesbatzaren emanaldia.

19:15-19:30 Nagusilan animazio talde guztien baterako emanaldia.

19:30-21:00 Nagusilan Donostialdeko boluntarioen topaketa, musikarekin.



Ezkerretetik hasita, Pello Arrieta, Veronica Lucia Zulaika, eta Gema eta Arrate Gurrutxaga ahizpak Garagartza baserriko atarian.

ZULAIKA-ARRIETA FAMILIAREN HISTORIA EHUNTZEN ARI DIRA ARGENTINARA ERBESTERATUTAKOEN ONDORENGOAK

✍️ Ainara Argoitia 🗣️ Zulaika-Urdanpilleta sendia

Mendaron Eusebio Mugertza *Txirristaka* bertsolariaren jaiotzaren 150. urtemuga ospatzen ari diren urtean jakin dugu Elgoibarren ere izan zirela sasoi hartan izena hartu zuten bertsolariak, Manuel Andres eta Lorenzo Zulaika aita-emeak, esaterako. Haien inguruko biografia labur bana eta bertso-sorta batzuk jasota ditu Antonio Zabala idazleak Auspoa bildumako 83. liburuan, eta uztailen, zulaikatar haien ondorengoak izan genituen Elgoibarren, Argentinatik sustraien bila etorrira: Veronica Lucia Zulaika Urdanpilleta eta haren alaba Manuela Marques-Monteiro Zulaika. Cañuelaseko (Buenos Aires, Argentina) euskal etxeko lehendakaria izan da 2017tik oraintsu arte Veronica Lucia, eta familiaren historia ehuntzen ari da, hariz hari.

Manuel Andres eta Lorenzo Zulaika aita-
 seme bertsolarien odolekoa da Veronica
 Lucia Zulaika Urdanpilleta (Cañuelas,
 Buenos Aires, 1968). Birraitona zuen Manuel
 Andres eta osaba zaharra -*tio abuelo*- Lorenzo,
 aitona Jose Domingoren anaia. Argentinan bizi da,
 baina uztaillean Elgoibarren izan zen alabarekin,
 aitona zuenaren historia osatu nahian, eta
 harekin elkartzeko bidea egin zigun Pello Arrieta
 historialari elgoibartarrak. Pello Arrietaren
 eskutik ezagutu zituzten Elgoibar eta inguruak,
 bai eta ahaide izan zituztenen jaiotetxeak ere.
 Elkarrizketarako batu ginen egunean, esaterako,
 Zulaika-Arrietatarrak bizi izan ziren Ontzegon
 (Untzon) baserrian, Veronicaren amona Maria
 Arrieta jaio zen Sallobenteko Garagartza
 baserrian, eta aitonaren jaiotetxean, Itziarko
 Lizarraran baserrian, izan ziren bisitan.

Erbestera emigratu zuten haien
 ondorengoen historia da Veronicarena, noizbait
 beren ahaideek egin zuten bidearen besterakoa
 egin duenarena, euskal sustraien bila. 2000.
 urtean etorri zen estreinakoz Euskal Herrira,
 senarrarekin eta bi lagunekin. Frantziatik
 Portugal alderako bidean egun erdiko geldialdia
 egin zuten Elgoibarren, aitona Jose Domingo
 Argentinara zein etxetatik partitu zen ikusteko.
 Osaba batek [German Zulaika] 1977an hona
 egindako bidaiatik zekien Veronicak aitona Jose
 Domingoren arreba gazteena, Leonor Zulaika,
 San Lazaro egoitzan hil zela 1984an, eta
 haraxe jo zuen laguntza eske. Maite Izagirre
 erizainarekin jarri zuten han harremanetan eta
 hark eman zizkion lehenengo argibideak. Atarira
 irtenda erakutsi zien Zulaika-Arrietatarrak bizi
 izan ziren Malaga etxea zegoen orube hutsa
 [Ermuaranbide kaleko lehenengo eraikinean,
 Orense taberna zegoen lekuan, gerora
 Errezabal taberna zabaldu zuten lekuan],
 eta berak jarri zituen harremanetan Juanito
 Arrieta elgoibartarrarekin, Pelloren aitarekin.
 Hunkitu egin da Veronica oroitze hutsarekin.
 "Telefonoz deitu zioten eta berehala batu
 ginen. Argentinan halako zerbait pentsaezina
 da". Juanito Arrietak harreman estua izan zuen
 Jose Domingoren anaia Manuelekin eta haren
 ahotik jakin zuen Veronicak, Leonorrez gain,
 Jose Domingoren beste arreba bat ere, Joxepa,
 San Lazaro egoitzan bizi eta hil zela.

Manuel Andres Zulaika 'Untzon' bertsolariaren eta Maria Arrietaren seme-alabetan bigarrena izan zen Jose Domingo, Veronica Zulaika Urdanpilletaren aitona, 20 urterekin Elgoibartik Argentinara migratu zuena

Ordurako Pello Arrieta hasita zegoen *Elgoibar, modernitatearen atarian (1870-1910)*. *Euskal jaiak (1907)* liburua idazteko dokumentazio lanetan; hasia zen, besteak beste, Manuel Andres eta Lorenzo Zulaika aita-seme bertsolarien inguruko berri jasotzen, eta halaxe ekin zioten historia honetako harimuturrak lotzeari. Geroztik harreman polita egin dute Pellok eta Zulaika-Urdanpilletatarrak, eta Veronicak Euskal Herrira egin dituen azken bi bidaietan Pello izan dute gidari. 2009ko bidaietan, esaterako, Veronicaren birraitona Manuel Andres Zulaikaren jaiotetxea bisitatu zuten Getariako Azkixu auzoan: Agote-txiki. Hantxe sortu zen Zulaika bertsolaria (1958-1926). Getariarrak zituen gurasoak: Miguel Zulaika eta Bentura Aristondo, baina Getarian baino denbora gehiago egin zuen Elgoibarren Manuel Andresek. Sallobenteko Garagartza baserriko alaba Maria Arrietarekin ezkondu zen eta Sallobente auzoko Ontzegon (Untzon) baserrian jarri ziren bizitzen, kalera jaitsi aurretik. Hain justu ere, baserri izen horixe hartu zuen ezizentzat: Untzon.

Bederatzi seme-alaba izan zituzten Manuel Andresek eta Mariak: Maria Pilar (1882), Luziano (1886), Juan Julian (1889), Veronicaren aitona zen Jose Domingo (1891), Lorentzo (1895), Klaudia (1895), Joxepa (1898), Manuel Kaietano (1899) eta Leonor (1903), eta bosgarrenak, Lorenzok, aitaren bertsotarako zaletasun bera ekarri zuen. Lorenzoren bidez iritsi zaizkigu aita zuenaren sei bat bertso ere, Antonio Zabalak jasota dituenak. Lagunartean aritzen zen bertsotan Manuel *Untzon*, taberna giroan, eta haren bidetik zaletu zen semea ere. Ontzegon baserritik kalera noiz aldatu ziren jakin ez arren, Manuel eta Mariaren seme-alabak, bi ez beste


guztiak, Errosarioko Gizonenianean jaio zirela uste da. Beste biak, berriz, bata, Getarian, Klaudia, eta bestea, Jose Domingo, Itziarko Lizarraranen.

ARGENTINARA, SOLDADUSKATIK IHESI

Azkeneko bidaiak honetan izan dute Jose Domingo aitona jaiotetxea bisitatzeko aukera Veronicak-eta. "Ez dakigu arrazoia, baina gure aitona Itziarren jaio zela jakin dugu, nahiz eta bat ez beste neba-arreba guztiak Elgoibarren jaio ziren, ordurako Elgoibarren bizi zirelako. Uste dugu propio joan zela gure birramona Lizarraran baserrira erditzera, behar baino aurretik zetorkiolako haurra. Ume goiztiarra izan zen gure aitona, zazpikia".

Hari asko daude historia honetan lotzeko oraindik, baina gauza jakina da, esaterako, 1911. urtean partitu zela Jose Domingo Zulaika Elgoibartik Buenos Airesera, soldaduskatik ihesi. 20 urte zituen. Veronicak kontatu du arreba gazteenak bakarrik ikusi zuela Elgoibartik irteten, ez baitzen etxekoez agurtu. "Euskaldun gazteak soldaduskara joaten hasi zirenetik gutxira, Espainiako estatuak hainbat gerra kolonialetan parte hartu zuen (Kuba, Filipinak, Maroko) eta gerra horietara soldaduak ez ezik, erreserbistak ere deitzen zituzten. Txirristaka bertsolariari Kubako gerrara joatea egokitu zitzaion modu berean, Jose Domingori Afrikako gerrara joatea tokatuko zitzaion ziurrenik, eta alde egin zuen", zehaztu du Pello Arrietak. Buenos Aires hiriburutik Mar de Plata bidean erdibidean dagoen Pila herrira iritsi zen Zulaika, 1911n, eta bera baino bi urte zaharragoa zen eibartar batekin ezkondu zen 1918an, Josefa Berazarekin. Bikotea Pilatik Chascomusera aldatu zirenean, jaio ziren beren lehenengo bi semeak: German (1919) eta Luis Orlando (1920), Veronicaren aita. Hiru alaba izan zituzten geroago, Altamiranora aldatu zirenean: Irene, Pilar eta Karmen.

Argentinara migratu zuten beste euskal herritar gehienek antzera, esnea saltzetik atera zuen bizimodua Jose Domingok. "*Tambero* esaten zitzaien. Behiak jeitzi eta esnea saltzen zuten. Ingelesen tren batean bidaltzen zuten esne hori Buenos Aireseko enpresetara, eta hilean behin hara joan behar izaten ziren, jorjala kobratzera,



1911. urtean alde egin zuen Jose Domingo Zulaika Arrietak Elgoibartik Argentinara. Josefa Beraza eibartarrarekin ezkondu zen han eta bost seme-alaba izan zituzten

leku berera denak. Kobratu ostean Euskaldunen Hotela esaten zioten lekura joaten ziren. Gure aitona saiatu zen kooperatibaren bat sortzen ere beste *tambero* batzuekin, baina ez zitzaion ondo irten. Ordurako hogeit bat urte zeramatzen *tambero* lanetan, baina sekula dirurik egin gabe". Jorjala kobratzera Buenos Airesera egindako osterata batean Veronicaren beste aitona izango zena ezagutu zuen, Antonio Maria Urdanpilleta, eta

hark hobeto irabazten zela esanda, Cañuelasera joan zen gero lanera, Ramon Etxebertz euskal herritarraren esnetegira. Etxebertz familiakoak etxe onekoak ziren, eta Cañuelaseko Euskal Etxearen historian eragile handiak izan dira.

1941etik 50era bizi izan ziren Cañuelasen. "Hantxe ezagutu zuen aitak gure ama ere, Juan Ramon Urdanpilletaren alaba, eta 1944an ezkondu ziren". Ez Jose Domingok eta ezta haren semeak ere ez zuten bizimodu errazik izan, *tambero* aritu ziren beste euskal herritar askoren antzera. 50 bat abelburukoazienda erositara, elkarrekin lanean ere aritu ziren Jose Domingo eta Luis semea, Urdanpilletatarrek errentan hartutako lurretan, baina hura hil zenean, seme-alabek oinordetza eskatu eta saldu behar izan zuten azienda Zulaikatarrek, eta berriro hasi; berriro zerotik, berriro *tambero*. Orduan ere amets amerikarra ez zegoen, nonbait, denen eskura. "1955era arte ez zuen egonkortasunik lortu gure aitak. 1950ean hil zen gure aitona Antonio Urdanpilleta eta 1953an alargundu zen gure aitona Jose Domingo Zulaika. 1982an hil zen arte, alaba gazteenarekin bizi izan zen aitona Jose Domingo, baina urritik apirilera arteko tartea gurean egiten zuen. Ez zen gauza asko kontatzekoa. Isildu egiten zuen sufrimendua, baina kontatzeko zuena gure amari kontatzen zion batez ere, eta hark guri".

ERBESTEAN DAGOENAREN HERRIMINA

Pello Arrietak aita zuenari entzundako kontakizun batzuk ere badira Jose Domingok alabari eta bilobei kontatutakoen artean, Zirilo Irusta Aldasoro *Matxatxa* elgoibartarrari gertatutako pasadizoak tartean. "Kontatzen zuen zezenketak antzezten zituztela arkumeak hartuta, eta xaxatu zutela behin Zirilo toreatzaile onena zela esanda eta bidali zutela arkume-saldoa toreatzera. Joan ei zen ausart hura eta jaurti ei zuen 40 metro atzera arkume batek, besteen zoramenerako. Beste behin, Txiki Egunez, konorterik gabe laga ei zuen larre-behi batek eta bizkarrean hartu ei zuten lagunek etxera eramateko. San Frantzisko kalean zihoazela, leihotik ikusi zituen emazteak eta senarrari mozkor traza hartuta, ospitalera eramateko agindu ei zien lagunei, berak ez zuela etxean mozkorrik behar esanda. 2009an hona egin nuen

Buenos Airesko probintzian ura ez da Euskal Herrian bezain ugaria eta horren falta zuen Jose Domingo Zulaikak Argentinan, bilobaren esanetan: "Izugarri gustatzen zitzaion igeri egitea"

bidaian hasi nintzaion Pellori kontatzen istorioa, eta berak bukatu zuen. Itzela izan zen". Eta jarraitu du Pellok. "Ospitaleko hura ere... Mojek laga omen zuten egoiliar bat Zirilo zaintzen, hilda zegoela esanda. Eta halako batean hasi da bestea esnatzen eta ondotik zaintzaileak: 'Hi, hago geldi, hilda hago eta!'. Erreserbista izana zen Zirilo eta Kubara bidali zuten, gerrara. Gorriak eta bi pasatu zituen han eta bueltatu zen ahul. Hainbestearainokoa zuen miseria, haren familia izan zela Elgoibarren Aldundiaren eta Udalaren laguntza jaso zuen lehenengoa, bere soldadari esker bizi zirelako haren etxeokak eta oso egoera makurrean gelditu zirelako, hura handik gaixo bueltatu zenean.

EUSKAL HERRIKO USADIOAK, AKORDUAN

Erbestean herriminez bizi izan zen Jose Domingo, eta bereziki "Euskal Herrian hain ugaria eta Argentinan hain eskas den ura falta zituen. Maalan bizi zirela ibaian bainatzen ziren, eta Debako hondartzan ere bai tarteka; izugarri gustatzen zitzaion igeri egitea, eta Buenos Aireseko probintzian ez zeukan horretarako aukerarik". Pello Arrietak aitari entzundakoa ekarri du horren harira: "Gure aitak kontatzen zuen Maalako zubi zaharretik salto egiten zutela ibaira". Euskal Herriko usadio zaharrak ere bihotzean zeramatzen Jose Domingok, bilobaren esanetan. Santa Ageda kantu-eskea, esaterako. "Ageda jarri nahi izan zidan niri ere izena". Inazio Loiolakoaren eguna ere urtero ospatu ei zuen. "Akordatzen naiz nola egoten zen etxeko hesiari helduta, Inazio Loiolakoaren kantua euskaraz kantatzen. Oso-osorik kantatzen zuen. Gure amamak ere errezuak euskaraz egiten zituen. Orain, Inazio Loiolakoaren eguna urtero

ospatzen dute Cañuelaseko Denok Bat Euskal Etxean, bai eta Aberri Eguna ere, 2007tik.

1960an sortu zuten Denok Bat euskal etxea, eta sortu zutenen artean dago Jose Domingo Zulaika Arrietaren izena. Zenbait euskal herritarren artean erosi zuten eraikina eta sortu zuten erbestean euskal kulturari arnasa emateko gunea. Unibertsitatea bukatu arte, baina, apenas zapaldu zuen Veronicak. Batetik, herrigunetik 30 bat kilometrora bizi zirelako, eta bestetik, bera jaio eta gutxira diktadura hasi zelako Argentinan eta euskal etxe guztiak itxi zituztelako, 1983an demokrazia itzuli zen arte. Giroa aldatu zen arren, diktadura garaian eraikina errentan hartu zuen ostalaria bota arte, beste zazpi bat urte behar izan zituzten Cañuelaseko euskaldunek. "1992. urteen artean, gure aitonaren patroiz izandako Ramon Etxebertzen semeek eta Euskal Herritik joandako Juan Indiberea eta haren bueltakoek ekimenez zapaldu zuten berriro Cañuelaseko euskal etxea. Mirestekoa da haiek egin zutena. Dirutza jarri zuten, gogotik lan egin, eta mobilizatu zituzten euskal jatorriko guztiak proiektu hura berriro martxan jartzeko. Gure ama eta neu ere ibili ginen errifak saltzen, baina sekula ez ginen talde eragilean jardun, 2000. urtera arte".

2000. urtean, Euskal Herritik bueltatu zenean, hil hurren zen Juan Ramon Etxebertz orduko presidenteak batzar batera deitu zituen bere etxera zuzendaritza taldekoak eta beste bi lagun,

1960an sortu zuten Jose Domingo Zulaikak Cañuelaseko Denok Bat euskal etxea euskal jatorriko beste zenbaitekin batera, eta 2017an izendatu zuten hango lehendakari bere biloba, lau urterako

tartean Veronica Zulaika: "Gizon handia zen Etxebertz, eragin handikoa euskaldunen artean. Hil aurretik, euskal etxearen geroa lotuta laga nahi zuen eta horixe eskatu zigun. Abenduan hil zenean, presidenteordeak hartu zuen bere kargua eta ni zuzendaritzan sartu nintzen. 2001ko urtarrila zen". Batzordekide gisa sartu zen Veronica euskal etxean, hamar bat urte egin zituen gero idazkari, eta 2017an euskal etxeko lehendakari izendatu zuten aurten arte.

Cañuelaseko euskal etxea txikia da Argentinako beste euskal etxe askoren ondoan (89 daude guztira), baina erreferentzialtasun handia lortu du azkeneko urteotan. 2020an, esaterako, Jaurlaritzak Diasporaren Eguna ospatzeko aukeratu zituen munduko zazpi euskal etxeetako bat izan zen, eta gaur, hura dute ahaide izan zituztenekin oroitzeko eta euskal identitatea sendotzeko gune Veronicak eta etxeok.



Zulaika-Arrietatarak Elgoibarren bizi izan ziren etxea: Malaga etxea.

ENEKOITZ ELORZA

Zikloturista

🔗👤 Ainara Argoitia / Transiberica

Duela hogeit hamar urte hasi zen zikloturistentzako probetan parte hartzen Enekoitz Elorza (Mendaro, 1976) eta klasika zikloturista ezagunenak behin eta berriro osatu ostean, distantzia luzeko probetarako hasi zen prestatzen. Aurtengo udan, Transiberica proban parte hartu du. Abuztuaren 24an abiatu zen Bolzanotik (Italia), 08:00etan, eta irailaren 1ean, 21:00ak aldera, iritsi zen helmugara, Bilbora. Gehienez ere hamalau egunetan osatzeko proba da Transiberica, 2.800 bat kilometroko bidea lotu eta 36.000 bat metroko desnibela pilatzen dituen. Pozik dago egindakoarekin eta itzuliko dela dio, baina 2025erako Londres-Edinburgo-Londres breveta dauka berriro begiz jota. Laugarren aldia izango du.



“Lanik egingo ez banu, ez nintzen beharbada horrenbeste ibiliko bizikletan”

Osatu duzun luzeena izan arren, Transiberica ez da egin duzun distantzia luzeko estreinako proba. Noiz hasi zinen halakoetan eta zerk bultzatuta?

Duela hogeit hamar urte hasi nintzen zikloturista martxetan parte hartzen. Quebrantahuesos proba zortzi bat aldiz eginda daukat, Marmot klasikoa ere osatuta daukat... Baina distantzia luzeagoko probetan, brevetetan, bizikleta irteera batean ezagutu nuen lagun bizkaitar baten eskutik sartu nintzen. 200, 400 edo 600 kilometroko probak izaten dira brevet ohikoenak, baina badaude luzeagoak ere. Esaterako, iaz egin nuen Paris-Brest-Paris breveta 1.200 kilometrokoa da, eta Londres-Edinburgo-Londres, berriz, 1.500 kilometrokoa. Estreinakoz 2013an egin nuen azken hori, eta 2017an itzuli nintzen, 2013an bukatzerik izan ez zuen lagun bati laguntzera. Ez zuen amaitu. 2022an itzultzea hitzartu genuen orduan, baina osasun kontuengatik ezin izan zuen parte hartu eta Donostiako lagun batekin joan nintzen. Datorren urtean joatekoak gara berriro, arantza kentzera.

Hala hasi nintzen distantzia luzeko probetan. Estreinako Transiberica proba, berriz, 2018an antolatu zuten, eta beti tentatu izan nau egiteak; Bilbon hasi eta bukatu zen edizio hura, iberiar penintsula gurutzatuta [4.000 Km-/+]. Antolatzaile berak, Carlos Mazon bilbotarrak, Transpyrenees antolatu zuen gero 2019an. Transpirenaica osatzen saiatutakoa nintzen ni 2010ean, laguntza kotxea hartuta, baina zortzi etapa beharrean bost egin nituen aukera zegoelako, eta baneukan arantza hori osora apuntatu ez izanarena [Pirinioak gurutzatzen ditu, Llanca herria (Girona) eta Donostia lotuta]. Halaxe eman nuen izena Transpyreneeserako. Port de la Selvan (Girona) irten eta Donostian amaitu genuen. Geroztik beste hiru aldiz egin dut, azkenekoz aurtan, eta behin hori eginda, beste zerbait nahi, badakizu!

Eta animatu zinen azaroan iberiar penintsula gurutzatzen duen proba handirako izena ematera.

2021ean ere eman nuen izena, baina sasoi

iritsi zenean ez nongoen nire onenean eta ez nintzen joan. Iaz, Malagan hasi eta Bilbon amaitu zen Transiberica, eta abuztu betean, 45 gradutan ibili ziren egun askotan txirrindulariak. Ni ez nongoen horretarako prest, baina aurtengorako ibilbidea aldatu eta kontrol-gune erakargarriak jarri zituztela jakin nuenenean (Stelvio Italian, Furkapass Suitzan, Mont Ventoux eta Carcassone Frantzia...) animatu nintzen izena ematera.

Zer ezaugarri ditu Transibericak?

Ezaugarri nagusia da guk geuk diseinatu behar dugula ibilbidea, beti ere markatutako derrigorrezko igarobide-kontrol-etatik pasata, eta hamalau egun t'erdi ditugula guztira bidea osatzeko. Antolatzaileen kalkuluen arabera, 2.800 bat kilometro daude Bolzanotik (Italia) Bilbora eta 36.000 metroko desnibela, eta bidean, hamar *checkpoint* jarri dizkigute aurten. Ibilbidea norberak diseinatzen duen arren, badaude arau batzuk bete beharrekoak. Irteten garenean jartzen da denbora martxan eta ez da gelditzen iritsi arte. Hau da, atsedean hartzeko, jateko edo lo egiteko geldirik zauden bitartean, denbora ez da gelditzen, eta beraz, ibilbidea ondo markatzea, estrategia bat jarraitzea eta norberaren ahalak ondo ezagutzea ezinbestekoa da. Saririk ez da izaten halako probetan, nahiz eta badiren, jakina, lehiatzera irtetzen direnak. Bilbora osorik iristea beste helbururik ez nion jarri nik nire buruari, eta hori beteta, pozik nago. Bestela, badaude zaindu beharreko beste kontu batzuk: ezin zara beste inoren gurgilean joan; debekatuta dago edozein zerbitzu erreserbatzea irteera baino lehen, ostatuak barne; eta ez dago senide eta lagunak laguntza jasotzerik. Etxekoak irteerara eta helmugara baino ezin dira agertu berez, eta salbuespen moduan, kontrol puntuetara, baina aurrez zehaztuta zenbat azalduko diren. Arazo mekanikoren bat izanez gero, berriz, norbera saiatu behar da konpontzen.

Nola prestatzen da bat halako proba baterako?

Biziketan asko ibiltzekoa naiz eta ez dut prestakuntza berezirik egin, baina kilometroak pilatu ditut, bai, azkeneko bi urteetan. Iaz, Paris-Brest-Paris egin nuen eta hara joateko serie bat egitea eskatzen dute, eurek homologatutako 200, 300, 400 eta 600 kilometroko brevetak egitea alegia. Lehiarekin zerikusirik ez duten martxak dira brevetak,



taldean egin daitezkeenak, distantzia luzeko probak ez bezala. Transibericara joateko, beraz, oinarri hori banuen, baina gero, egun jakin batzuetan, 300 kilometroko irteerak-eta egin ditut. Aurten 12.000 bat kilometro eginda joan nintzen Bolzanora, eta geroztik beste 3.000 bat egin ditut. Askok irudituko zaizu, beharbada, baina Bolzanon 28.000 kilometro eginda zituen kataluniar batekin ere egin nuen topo irteeran.

Bistan da hanka onak behar direla halakotarako, baina nola prestatzen da burua?

Ez dakit. Momentu onak eta txarrak izango zirela jakinda joan nintzen, baina zortez ez dut miseriarik pasatu. Egon dira egunak oso sentsazio txarrekin hasi ditudanak eta burura datorkit orain Manresatik igaro nintzenekoa. 05:00ak aldera pasatu nintzen, jendea jaietatik etxera erretiratzen ari zela, eta ni, han, ezinean. Jatekorik ez neukan, eta 06:00ak aldera litxarrerri pakete bat irentsita egin nuen aurrera, automata bezala. Gainerakoan ez du aparteko hotzik egin, eta hori gauza handia da halakoetan. Zortea izan dut, ez dudalako zulatu bakar bat ere izan eta gorputzak ondo erantzun didalako. Jakineko gauzak ekarri ditut etxera: nekea, ipurdiko mina, lo falta eta molestia txikiren bat belaunean, baina gauza aipagarrik ez.

Zer perfiletako jendea topatu duzu?

Gehienez ehun lagunentzako lekua zegoen, eta parte-hartzaileen erdia baino gehiago Espainiako estatutik kanpokoak izan dira. Gazteenak 22 bat urte izango zituen eta zaharrenak 60 bat.

Hamalau egunetan egiteko proba da. Ez du horrek lotarako tarte handirik uzten. Nola antolatu zara?

Hirugarren egunetik aurrera edozein bazterretan hartuko nuen lo seguruen, baina ez naiz lotarako onena, eta egun bat ez beste guztietarako ostatua hartu nuen. Zer zen probatzearen kanpoan lo egin nuen gau bakarrean eltxoek jan ninduten eta ez nuen batere deskantsatu. Gau batzuk pasatu ditut bizikleta gainean ere. Lehenengo egunean, esaterako 08:00etan abiatu ginen, eta gau hori bizikleta gainean eman nuen. 550 bat kilometro egin nituen.

Egia esan badago eztabaida horren inguruan, lehenengoek ordu gehiegi egiten dituztelako bizikletatik jaitsi gabe eta hori arriskutsua gerta daitekeelako, batetik, lo faltak despisteak eragin ditzakeelako, eta bestetik, gauzez animalia basati asko ibiltzen direlako eta arriskutsua gerta daitekeelako. Ezagutzen dut 2021ekoan gauzez basurde bat jo eta oraindik arrastoak dituen, iaz Transiberica irabazi zuen Ana Orenz txirindulari alemaniarra. Gehiegikeriak saihesteko, duela pare bat urtetik derrigorra da 72. ordutik aurrera, eguneko lau orduko geldialdia egitea.

"Ibilbidea nik neuk diseinatzeak egiten zidan ilusio handiena, baina aldi berean, horixe da gogorrena ere, gauza asko hartu behar direlako kontuan"

Eta nola zaintzen dute hori?

GPSaren bidez kontrolatzen dituzte egiten ditugun geldialdiak, baina horrek ez duena ziurtatzen da tarte horretan lo egin dugula. Baina ezer baino gehiago bada behintzat.

Zer egin zaizu gogorrena?

Joan aurreko prestakuntza-lanak. Horretxek egiten zidan ilusio handiena ere, neuk diseinatzeak ibilbidea, baina egia da sekulako lana dela. Gauza asko hartu behar dira kontuan: non gelditu; nora iritsi gaua egiterako... Aurten, Stelviorainoko 150 kilometroak zehaztuta genituen, baina hortik aurrerakoan bakoitzak nahi zuen bidea egin zezakeen, beti ere kontrol guneetatik pasatuta. Stelviotik hurrengo kontrol gunera, Furkapassekora, 250 bat kilometro egongo dira, eta nik adibidez, bide motzeta baztertu eta beste bat hartu nuen, eguraldi makurra iragarri zutelako eta ez nuelako nahi gaua 1.000 metrotik gora pasatu. Stelvioko gainetik zuzenean Suitzara jaitsi ordez, Italia aldera luzatu nuen ordekatik, Suitzara Luganotik sartzeko. 60 kilometro gehiago egin nituen, baina gaua udako arrokekin pasatu nuen, 20-21 gradutan.

Aurrekoak nondik igarotzen ziren jarraitzeko aukera ere bageneukan, eta beste egun batzuetan aldatu ere egin nuen plana, aurreko denek beste bide bat hartzen zutela ikusita. Lehenengo iritsi zirenek 2.700 bat kilometro egin zituzten guztira eta nik 150 bat gehiago egin nituen, batzuetan hotzaren beldur eta beste batzuetan desnibel handiak saihesteko, bide luzeagoa egitea hobetsi nuelako. Guztira, 35.000 metroko desnibela egin nuela markatu zidan aplikazioak.

Teknologia aipatu duzu. Zer dira gailuak halakotarako?

Teknologia laguntza handia da eta horregatik zabaldu dira horrenbeste halako probak

azkeneko zortzi bat urtean. Telefonoa bateriarik gabe gelditzen ari zela ikusten nuenean sekulako paranoiak sortzen zitzaizkidan. Ezagutu dut, hala ere, sopoloztar bat, Pello Bilbao txirrindulari profesionalaren koinatua bera, GPSrik gabe joan dena, ibilbideko kruze guztiak paperean markatuta. Eskulekua garbi nahi zuen hark.

Zer eraman zenuen bizikletan zurekin?

Hori ere ikasi egiten da. Jende gehienak soinean daraman arroparekin egiten ditu hamar-hamalau egunak, baina nik aldatzekoa eraman nuen. Lo egiteko gelditzen nintzenez nola-hala garbitzen nuen erabilitakoa ostatuan, eta kulot bustia bizkarrera lotuta irteten nintzen biharamunean, lehortu zedin. Kaleko praka batzuk eta barruko beste arropa bat ere hartu nituen, egun osoz bizikletako arrokekin ibiltzea gehiegia zaidalako. Erabaki egin behar da hemen: seguruago eta erosoago joan pisu gehiagorekin, edo erosotasuna sakrifikatu, arrisku batzuk hartu eta arinago joan. Hamar egunerako eguraldi iragarpenek ere ez dute beti asmatzen, baina tendentzia bat erakusten dute eta horri egin nion kasu. Aurten, Transpyreneesen, esaterako, ikusten zen Irati aldera sartutakoan txarra egin behar zuela, eta arropa gehiago eraman nuen hara bost egunerako Transibericara hamar egunerako baino. Edozer pasa daiteke, hala ere. Iaz, Transibericaren, 45 bat gradutan ibili ziren Madrilerara arte, eta handik Galiziako mugara bidean 5 gradura arteko maximak eta euria izan zituzten. Hori oso gogorra da, behin bost bat egun egindakoa gorputza debilduta egoten delako eta ez duelako berdin erantzuten.

Ibilbideari erreparatuta, zer egin zaizu gogorren?

Esango nuke Aragoiko lautada amaigabeetan gehiago sufritu dudala beste edozein mendatetan baino. Zaragozan, Ejeos de los Caballeroseko lautada horiek, tortura psikologiko bat dira.

Gozamenerako tarterik izaten da halakoetan?

Jakina, bestela ez genuke izenik emango. Egunean zehar gorabehera asko izaten dira baina merezi du. Asko gozatu dut, adibidez, Suitzako parajeetan. Furkapasseko kontrolera iritsi aurretik 2.109 bat metrora dagoen San Gotardoko pasabidetik igaro ginen eta ikusgarria

*"Egunean zehar
gorabehera asko izaten dira,
baina merezi du. Asko gozatu dut,
adibidez, Suitzako parajeetan"*

egin zitzaidan. Suitzaren kilometro batzuk egindakoa nintzen aurrez, baina baneukan gehiago ezagutzeko gogoia, eta egia esan, hango auto gidariengatik ez balitz, esango nuke zoragarria dela. Baina gidariak ez zaizkit iruditu errespetu handikoak. Frantziarrek ez dute batere fama onik, baina suitzarrek onak egiten dituzte. Gidari onenak Katalunian topatu ditut. Sufritu nuen Chamonixen ere. UTMBko probak jokatzen ari ziren eta sekulako trafikoa zegoen. Maite [Maiores] ere han ibiliko zela banekien eta idatzi ere egin nien Kilimon Trail antolatzen duten lagunei, adarra joz, euren antzekoen erruz bizikletan ibiltzerik ez genuela esanez.

Ez al duzu izan tentaziorik bizikleta laga eta parajeez beste modu batean gozatzeko?

Baneukan asmoa leku batzuetan lasaiago hartzeko, baina gero sartzen zara hango martxan, ikusten duzu zure inguruan dabilzanak aurrera doazela eta ahazten dituzu asmo denak. Nolanahi ere, gauza bat esango dizut: bizikletari esker bazter asko ezagutu ditut nik han-hemen. Bizikletan pasa, gustatu lekua eta itzuli naiz gero etxekoekin leku horietara.

Zer da zuretzat bizikleta?

Deskonexiorako erreminta. Lanik egingo ez banu, ez nintzen beharbada horrenbeste ibiliko.

Zer sentitu zenuen Bilbora iritsi zinenean?

Aparteko ezer ez. Astelehena zen, 21:00ak aldera, eta etxeko ohea harrapatzeko gogoia baino ez neukan nik, baina arrebak taberna batera eraman ninduen zerbait hartzera. Biharamunean noiz jaiki, zer bide egin eta noraino iritsi behar nuen pentsatu beharrik gabe oheratze hori gauza handia da, eta une horretan, hori pentsatu nuen.

San Migel jaiak ospatuko dituzte asteburuan, Aiastian



Domekan izango da San Migel Eguna, eta horren bueltan antolatu dituzte Aiastiako jaiak. Bihar eguerdian hasiko dira, eta domeka arratsaldera arte ekintzaz beteriko asteburua izango dute. Zapatuan gainera, autobus zerbitzua egngo da Txaridunako errotodatik auzora joan-etorria egiteko. Ez dira faltako urteroko bolo txapelketak, idi demak eta Haritz dantza taldearen emanaldia, eta ezta umeentzako jolasak ere. Antolatzaileek jakinarazi dute igandeko meza 10:00etan izango dela. Egitarau guztia agendako orrietan duzue ikusgai.

'Tertuliak' egitasmoan izena emateko epea zabaldu dute



Urrian hasiko da *Tertuliak* egitasmoaren ikasturte berria, eta dagoeneko zabaldu dute izena emateko epea. Euskaraz hitz egin nahi baina, arrazoi ezberdinengatik, horretarako aukerarik ez dutenezako egitasmoa da. Astean ordubetez batzen dira lauzpabost laguneko taldeetan, euskaraz hitz egiteko. 2001ean jarri zuten martxan egitasmoa Elgoibarko Izarrak, Elgoibarko Udalak, AEK euskaltegiak eta Udal Euskaltegiak, eta iaz esaterako, 39 laguneko hartu zuten parte, zazpi taldeetan banatuta. Interesatuak urriaren 11ra arteko epea dute izena emateko. AEK euskaltegian (607 601 423), Udal Euskaltegian (943 74 27 31) edo Elgoibarko Izarran (943 74 16 26) eman daiteke izena.

'Arnasetik' bideo-sormen lehiaketa antolatu dute gazteentzat

LH5etik DBH4ra arteko gazteentzako bideo-sormen lehiaketa antolatu dute. Taldeka edo bakarka hartu daiteke parte, baina baldintza da istorioak euskaraz kontatu

behar direla. 500 euroko lau sari banatuko dituzte. Sari banaketa azaroaren 28an izango da. Informazio guztia arnasagara.eus webgunean aurkituko duzu.

Irailaren 30ean ekingo dio ikasturteari Egur Arte Tailerrak

Egur Arte Tailerrak astelehenean hasiko du ikasturtea, momentuz Merkatu Plazan duten lokalean. Helduentzako zein umeentzako eskaintza zabala prestatu dute: helduak astelehenean eta ostegunetan joateko aukera izango dute, goizez edo atsaldez, 10:30-12:00 edo 18:30-20:00. Umeek, berriz, arratsaldero izango dute margo eskolak jasotzeko aukera, 16:50etatik eta 17:50era. informazioa eta izen-emateak: 666 557 538 edo egurarte@gmail.com.



Eli Pagola nagusitu da Gipuzkoako Bertso Txapelketako Elgoibarko kanporaketan



Elgoibarko Herriko Antzokian jokatu zuten domekan Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako laugarren final-zortzirena. Sei bertsolari aritu ziren kantuan, eta lan puntuagarriak amaituta, Eli Pagola Apezetxeak eskuratu zuen puntu gehien, 487,5 puntu.

Horrenbestez, urriaren 26an Azkoitian jokatuko duten final-laurdenetarako sailkatu da. Saio arrakastasua izan zen domekakoa. Sarrera guztiak agortu ziren eta Herriko Antzokia bete egin zuten bertsozaleek, argazkian ikus daitekeen moduan.

Gilipojazz taldearen kontzertua gaur, Sotoko Hotsak jaialdiaren barruan



Atzo hasi zen Sinuösek antolatutako Sotoko Hotsak jaialdia eta gaur izango du bigarren saioa. Gilipojazz taldeak emango du kontzertua, 23:00etan hasita, Kultur Etxeko sotoan. Sarrera bost euroan jarri dute. Madrildik datorren hirukoa da. Iker Garcia (gitarra), Angel Caceres (baxua) eta Pabli Levin (bateria) dira taldekideak, eta funk, rock aurrerakoia, metala eta musika klasikoa uztartzen dituzte. Kanta instrumentalak egiten dituzte, bereziki.

'Todas las hijas' antzezlan gaur, Herriko Antzokian



Herriko Antzokiko langileen grebaren ondorioz bertan behera geratu zen *Todas las hijas* antzezlan gaur taularatuko dute, 19:00etan. Bost emakume aktoreren historia da, haien bizitzaren kontakizuna. Bost emakumek hitz egiten dute, hitz egiteko beharra dutelako. Dauden lekura nola iritsi diren kontatzeko beharra dute, eta denak beraien amaz gogoratzen dira. Sarrerak *herrikoantzokia.eus* helbidean eros daitezke aurrez, eta bestela, Herriko Antzokiko lehiatilan.

Uste onenak gainditu ditu Gararockek

Azkenak biribildu ohi du bertsoa, eta aurtengo Gararock jaialdian gonbidatu gisa kantatu duten Mendaroko bertso eskolako haurrek hiru bukaeratan jaso zuten Gararocken esentzia, oholtzara igota. Esan zuten gauari su emateko gogoz etorriak zirela musikariak eta jarriko zituela musikak plaza bete lagunen bihotzak taupaka, eta egin zuten proposamena: gozatzeko urtetik urtera hazten ari den herriko jaialdiaren magia, dena ez delako BEC betetzea. Eta horixe izan zen, funtsean, Gararock: neurri txikiko jaialdi handia. San Agustin aretoan eta Gartzianeko aparkalekuan altxatu zuten karpan izan ziren bost kontzertuak, euria egingo zuela iragarria zegoelako, baina ateri eutsi zion bost emanaldiak bukatu bitartean. Gainerakoan, beren esku zegoen guztia mimoz zaindu zuten antolatzaileek, eta gozatu zuten denek, publikoak zein musikariek eurek, sare sozialetan batzuek eta besteek zabaldu dutenaren arabera. Head Holes taldeak hasi zuen jaialdia eta Belakok itxi, behintzat karteletan iragarria zutenera artekoa, baina jarraitu zuen jaiak, etxeko DJak aritu baitziren ondoren musika jartzen.



Juxe



Schmidt



Schmidt



Schmidt



Schmidt

Mendaroko gaztetxea bete egin da Gazte Asanbladakoek antolatutako bertso-tramarako

Bertso Trama antolatu zuen Gazte Asanbladak joan zen barikurako eta Mendaroko gaztetxea bete egin zen. Kristiña Fidalgo Gazte Asanbladako kideak egin zituen gai-jartzaile lanak eta lau bertsolari aritu ziren kantuan: Aitor Zubikarai, Bittor eta Txaber Altube anaiak eta Maide Garmendia. Gai-jartzaileak pertsonaia bat sortu zuen bertsolari bakoitzarentzat eta haren azaletik aritu ziren kantuan, gai nagusi baten bueltan: Gaztetxea. Gazte Asanbladan azkeneko urtea duen gaztea bata, batu berria den gazte kunplitua bestea, dena uste dakiena hirugarrena, eta porroen menpe bizi dena laugarrena. Gaztetxeko dinamikan sortzen diren egoera ezberdinei



erantzun behar izan zieten kantuan. Umore dosi handia izan zuen bertso-tramak eta ikusleek gogotik gozatu zuten.

Aire libreko margo lehiaketa antolatu dute Mendaron biharko

Aire libreko margo lehiaketa antolatu dute Mendaron biharko. Teknika, formatu eta euskarri librea erabilita sortu beharko dituzte lanak margolariak, Mendaroko herria gai hartuta. Irailaren 28an bertan, 09:00etatik 11:00ak bitartean zigilatu beharko dituzte erabiliko dituzten euskarriak, frontoian, eta 13:00etatik 14:00ak bitartean entregatu beharko dituzte beren lanak, leku berean. Sari banaketa ekitaldia, 14:30ean izango da, frontoian bertan. Bi kategoria izango

dira: nagusia eta 14 urtez azpikoena. 14 urtez azpikoetan, bi maila bereiztuko dituzte egileek. Nagusien mailan, berriz, lau sari banatuko dituzte: 700 euroko sari nagusia, 500 euroko bigarren sari bat, eta 300na euroko bi accesit.

Epaimahaiak apartatutako lanekin erakusketa osatuko dute gero, urrian. Hiru egunez bisitatu ahal izango da, urriaren 4, 5 eta 6an, ondorengo ordutegi honetan: 12:00etatik 14:00etara goizez, eta 18:00etatik 20:00etara arratsaldez.



San Roke jaietako errifak baditu irabazleak

San Roke jaietako errifaren zozketako irabazleak ez dira agertu, eta bi sariak ordezeko zenbakidunek jaso dituzte. Lehenengo saria janariz eta edariz beteriko orgatila izan da, eta Azpeiti aldera joan da. Maria Isabel Iurre izan da irabazlea, 2703 zenbakiarekin. Bigarren saria, berriz, telebista, Miriam Iriondok jaso du 0982 zenbakiarekin.

Aimar Quintanak irabazi du Valentin Romeraren oroimenezko lasterketa

Ez ditu garai onenak bizi oinarrizko txirrindularitzak oraintxe, eta nabari zen giroan joan den domekan jokatu zuten Valentin Romeraren oroimenezkoan. Denboraldiko azkeneko lasterketa jokatu zuten junior mailako eta kadeteetako bigarren urteko txirrindulari gazteek, Elgoibarren, aurrera begira zer izango den jakin gabe. Hala ere, lasterketa ederra osatu zuten txirrindulariek. 92 txirrindulari abiatu ziren kalegoen plazatik eta 66k lortu zuten lasterketa amaitzea, Idotorbe gainean. Guztira, 82 kilometroko ibilbidea osatu zuten bukatu zutenek. Aimar Quintana Invitec-Iturribero taldeko txirrindularia izan zen tropeleko azkarrena. Bakarrik helmugaratu zen, 2:01:15eko denbora eginda. Aimar Fernandez de Gorostiza helmugaratu zen bigarren, irabazlearengandik 33 segundura (Ipar Maquina-Dimaq), eta Markel Gonzalez Somarribak osatu zuen podiuma (Gastronomiabasca-Liftra-Rosmil).

Manifestazioa, urriaren 13an

Gipuzkoako Txirrindularitza Federazioko zuzendaritzak dimisioa eman zuen uztailen, Gipuzkoako trafikoa arduradunek jartzen



dizkieten oztopoekin lan egitea ezinezkoa dela arrazoituta. Egoera, baina, ez da konpondu ordutik. Horregatik, eta egoera desblokeatzeko, mahai baten bueltan batu eta arazoari elkarrekin konponbide bat emateko eskatu diete behin eta berriro agintariei, baina ez dute nahi zuten besteko erantzuna jaso, eta ondorioz, urriaren 13rako manifestazioa deitu dute Donostian (belodromoan hasita, 11:00etan). Elgoibarko Lagun Taldeak eta Mendaroko Txirrindulari Elkarteak ere bat egin dute deialdiarekin eta parte hartzera deitu dituzte txirrindularitza maite duten guztiak.

Sanloren garagardo azoka, urriaren 3tik 6ra

Urriaren 3an, egunean, zabalduko dute Maalan SanloBeer garagardo azoka, hamargarrena, eta domekara bitartean zuzeneko musika emanaldiek, bingoak edo dantzaldiek girotuko dute azoka. Bederatzi garagardo mota egongo dira aukeran eta jatekoari dagokionez, egunero salduko dituzte ukondoa, saltxitxak, patata purea, oilaskoa eta patata frijituak. Pintxo potea eta bingo solidarioa ere antolatu dituzte. Azken egunean, domekan, paella erraldoi bat prestatuko dute, eta txartelak aurretik hartzea gomendatu dute. Zuzeneko musikak girotuko du SanloBer festa: Kitziki taldeak emango du kontzertua bariku gauean eta Azkaiter Pelox Band taldeak zapatu gauean. 25 urte bete dituztela



ospatzen ari da aurten Sanlo, eta bideo bat sortu dute urteotan protagonista izan diren hainbat lagun biziarekin.

Elgoibarko Rallysprinta antolatu dute urriaren 5erako

Albiste onak jaso dituzte rally autoen zaleek azkenaldian. San Migel Rallysprinta berreskuratu zuten lehenik, urte askoan jokatzeko egon eta gero. Orain, berriz, Elgoibarko lehen rallysprinta antolatu du Kastinparro Racing Taldeak. Urriaren 5ean, zapatua, jokatuko dute, Azkoiti eta Elgoibar arteko Azkarate mendateko errepide zaharrean. Azkoiti partetik irtengo dira parte-hartzaileak, 14:00etatik aurrera, eta Elgoibarren egongo den helmugara arte ailegatu beharko dute, ahal duten azkarren. Sallobenterako bidegurutzetik gertu egongo da helmuga marra, GI-3321 errepideko 5,500 kilometroan hain justu ere. Gidariek 8,65 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute.

Etxebarriko Kastinparro Racing taldeak antolatuko du Euskadiko Koparako puntuagarria



izango den proba, Lea Artibaiko Rallyaz gain, Elgoibarko Rallysprinta antolatzeko ardura hartu baitzuten euren gain denboraldi hasieran. Proba jokatu den egunean trafikoarentzat itxita egongo da Azkarateko errepide zaharra, 12:45etik 20:00etara.

Sergio Gonzalez "Kuki" omendu dute, lagunez inguratuta



Sergio Gonzalez *Kukik* bizi oso bat eman du C.D. Elgoibarri lotuta. 14 urte zituela hasi zen klubarentzako lanean eta erretiroa hartu duen arte, 45 urte egin ditu material arduradun gisa. Omenaldia egin zioten zapatuan Mintxetan. Ligako bigarren partida, etxeko aurrenekoa, jokatu zuen gizonetzkoen Haundi taldeak Mondraren aurka, eta partidaren atarikoan omendu zuten Kuki. Lora-sorta bat, argazkiz osatutako koadroa eta C.D. Elgoibarren kamiseta bat oparitu zioten. 45

zenbakia zuen kamisetak, klubarentzat lanean aritu den urte kopurua. Omenduarekin batera irten ziren zelai erdira azken 45 urteotan klubeko presidente kargua eduki duten lagunak, Kukik klubaren alde egin duen lanari aitortza egiteko. Gizonezkoen Haundi taldeak 0-2 galdu zuen Mondraren aurkako partida. Emakumezkoen Haundi taldeak ere arratsalde berean jokatu zuen Ligako estreinako partida eta 0-3 galdu zuten Antiguoko taldearen aurka.

LANA**Eskaerak**

LH eta DBHko ikasleei klase partikularraWk emateko prest nagoen neska elgoibartarra naiz. Esperientzia daukat. **674 463 800**

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan. Asteburuetan ere bai. Esperientzia handia daukat eta erreferentzia ezin hobek askaini ditzaket. Berehala hasteko prest. **632 711 473**

Astehenetik ostiralera, arratsaldean lan egingo nuke, adinekoak zainduz edo etxeko lanak eginez. **620 757 528**

Pintore lanetan esperientzia handia daukat. Elgoibarren zein inguruko herrietan lan egiteko prest nago. **634 155 697**

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Esperientzia handia dut. Orduka edo jardunaldi osoz lan egiteko prest nago. **611 215 176**

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka. Gauzez ere lan egiteko prest, etxean zein ospitalean. **631 425 686**

Etxeko garbiketa lanak egiteko prest nago. **624 534 735**

Adinekoak zein haurrak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka, egunez. **604 205 271**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia eta titulu soziosanitarioa ditut. Erreferentziak. **660 919 423**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia handia daukat. Etxeko langile moduan edo orduka aritzeko prest. **632 708 954**

Gazte euskalduna, goizetan umeak eskolara eramateko prest. **695 370 390**

Adinekoen zaintzan (titulu soziosanitarioa daukat) edota administrazio-kudeaketan lan egiteko prest nago. **624 121 726**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. **631 584 186**

45 urteko emakumea lanerako prest. Arduratsua naiz eta lanerako beharra daukat. Ume zein nagusi zaintzeko prest nago eta garbiketa lanak ere egiten ditut. **679 137 966 (Cristina)**

ETXEBIZITZAK

Bi ikasle elgoibartar gara. Donostian ikasle-pisuan gaude eta logela bat libre daukagu. Interesa duen ikasleren baten bila gabiltza. **609 170 512**

BESTELAKOAK

Gehienez hektarea bat duen lursaila erosiko nuke, Elgoibarren edo inguruan, ortua prestatzeko. **696 295 098**

administradores

Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas
Euzkoako Elkar Administrazioak
Larriak Kontak



**ROSA M^a
PINTADO**

Etaldeko Administrazio-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679

rosapf@telefonica.net


Gure atarian, fatxada konpondu nahi dugu, eta beheko lokalen jabeek uko egiten diote gastu horretan parte hartzeari. Esan dute Estatutuek atariko gastuetan parte hartzetik salbuesten dituztela, eta, gainera, beraiei dagokien fatxadaren zatia egoera onean dagoela diote. Jakin nahi nuke fatxada konpontzearen ondoriozko gastuetan parte hartzera behartu daitezkeen.

Printzipioz, eta arau orokor gisa, indarrean dagoen araudiaren arabera, pisu eta lokalen jabe guztiek higiezinaren gastu komunak ordaindu behar dituzte, salbu eta estatutuetan berriaz salbuestita badaude edo Batzordearen erabakiz hala ezarrita badago. Beraz, kontsultatutako kasuan, eta higiezinaren dokumentazio guztia aztertu ondoren, estatutu-klausulak lokalak solairuetarako eskaileretarako edo sarreretarako ordainketa komun batzuetatik soilik salbuesten ditu, eta horiek duten interpretazio murriztailearen ondorioz, uste dut ezin dela zabaldu eraikinaren fatxada orokorra pintatu eta mantentzera.

ONDORIOA: Beheko solairuko lokalen jabeek gastuak ordaintzen lagundu beharko dute, fatxadaren zatia beren iritziz egoera onean dagoen arren.



AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2


Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barreneko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo  **688 655 658** bidailita.



Zorionak, **Milene**, atzo 3 urte bete zenituelako, muxu handi bat amama Asun eta gainerako familiakoen partez, bereziki Martinen partez.



Zorionak, **Ainere!** Irailaren 25ean 11 urte handi bete zenituen. Segi beti bezain alai, maitea. Patxo handi bat familiako denon partez.



Zorionak, **Elur**, eta 8 besarkada handi zure familia osoaren partez.



Zorionak, **Itxaso**, astelehenan 11 urte beteko dituzulako. Muxu asko, denon partez.



Zorionak, **Garazi**, 9 urte! Txapelduna! Patxo handi bat etxeko guztien partez!



Zorionak, **Maitane**, atzo 10 urte bete zenituelako. Etxeko eta lagunaren partez, muxu handi bat, polit hori!

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.



Udako argazkien lehiaketa Bozketa!

Irailaren 29ra arte, **BARRENEKO** irakurleek udako argazki onena zein den bozkatzeko aukera dute. Animatu!

- 3 argazki aukeratu daitezke.
- Gailu bakoitzetik behin bakarrik bozkatu daiteke.

Argazki irabazleen sariak:

- EPAIMAHAIAREN SARIA: Bi lagunentzako bazkari/afaria Gabi jatetxean (dastatze menua)
- PUBLIKOAREN SARIA: Errigorako produktu sorta.

barren.eus/lehiaketa

Irabazleen izenak irailaren 30ean, astelehena, jakinaraziko ditugu barren.eus-en.



EXPRESS ESKAINTZAK!

COMBI HISENSEN RB390N4BCC HOZKAILUA



A1G C

599 €

- 304 litro
- 186zm-ko altuera
- Total no frost
- Barruko argiztapena
- Ate itzulgarria
- Supre freeze
- EKO modua, aztarnen aurkako altzairu herdoilgaitza

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

27 BARIKUA

19:00 Antzerkia: 'Todas las hijas'. Herriko Antzokian.

23:00 Sotoko hotsak: Gilipojazz taldearen kontzertua. Sinuösek antolatuta, Kultur Etxeko sotoan.

28 ZAPATUA

09:00 Aire libreko margo lehiaketa. Mendaron.

10:00 Debabarreneko orientazio raida. Aittolako aparkalekuan hasita.

29 DOMEKA

10:00 Dultzaineroen diana. Elgoibarko kaleetan zehar.

12:30 Udal Musika Bandaren kontzertua. Herriko Antzokian. Zuzendaria: Gorka Mujika.

1. *Agüero, pasodoblea*. (J. Franco).

2. *The exodus song*. (E. Gold).

3. *Autumm leaves*. (J. Kosma).

4. *Eiza, polka*. (J. Strauss).

5. *El chaleco blanco*. (F. Chueca).

6. *Bella Italia*. (H. Kolditz).

30 ASTELEHENA

18:00 Hausnarketa taldea: 'Elegir irse, es irse'.

Haizeak antolatuta, emakumeentzako saioa, Loredi Salegirekin. Lilan, ele bitan.

SAN MIGEL JAIK (AIASIAN)

28 ZAPATUA

12:30 Kanpai jotzea, jaiak hasteko.

13:00 Umeentzako ginkana eta puzgarriak.

14:30 Bazkaria.

Bazkalostean, puzgarriak eta txapa tailerra.

17:30 Bolo txapelketa.

19:30 Haritz dantza taldearen emanaldia.

21:30 Afaria (Tiketak agortu dira).

00:00 Erromeria: Fan&Go taldearekin.

Ondoren, musika giroa.

Oharra: Txarridunako errotondatik autobusa egongo da: 19:00etatik 23:30era arte, eta 00:15etik 05:00ak arte.

29 DOMEKA

10:00 Meza.

Jarraian, Baltzola eta Andonegi trikitilariak.

12:00 Auzoko eta herriko umeen arteko pilota partidak.

Ondoren, nagusien arteko pilota partida.

14:30 Bazkaria.

17:00 Idi demak.

Jaia girotzeko, Baltzola eta Andonegi trikitilariak.

Makina erremintan diharduen DOIMAK S.A.
enpresa elgoibartarrak
EROSKETA ARDURADUNA behar du

Doimak

EGINKIZUNA:

- Material komertzialen eskaerak
- Hornitzaileekin eskaintzen kudeaketa eta prezioen negoziazioa
- Eskaeren segimendua
- Fakturen eta albaranen kudeaketa

BESTELAKOAK:

- Elgoibartik hurbil bizitzea baloratuko da.

LANPOSTURAKO BALDINTZAK :

- Ingeniaritza edo EAZ (ADE) Gradua.
- Esperientzia antzeko lanpostu batean, ahal bada, sektore berean.
- Antolatzeko gaitasun handia.
- Ofimatika (ERP: IDS) eta logistikako jakintzak.
- Ekimena, taldean lan egiteko gaitasuna eta autonomia.
- Hizkuntzak: Ingelesa eskatzen da maila ertain/altuan.

Interesa duzuenak bidali Curriculumuma helbide honetara: webmaster@doimak.es

AZKEN ZAPATUKO FERIA

28 ZAPATUA

09:00 - 14:00 Baserriko produktuen eta Artalde taldearen produktuen salmenta. Kalebarren plazan.

11:00 Lagun Taldeak txosna zabalduko du, eta Elgoibarko baserrietako eta harategietako produktuekin eginiko pintxoak salduko dituzte.

12:00 Umeentzako tailerrak, Kalebarren plazan.

Eguerditik aurrera, ganadu erakusketa, Kalebarren plazan.

Iñaki Agirre zinemaldia (Ongarri zinekluba)



'Los pequeños amores'

28 zapatua: 19:00 / 22:15

29 domeka: 19:00

30 astelehena: 21:00

2024ko botika ordutegiak:

09:00-13:00 / 16:00-20:00

GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00

Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

IRAILA

27 BARIKUA	Barrenetxea
28 ZAPATUA	■ Soto
	■ Barrenetxea
29 DOMEKA	■ Soto
30 ASTELEHENA	Garitaonandia

URRIA

1 MARTITZENA	Arriola
2 EGUAZTENA	■ Fernandez
3 EGUENA	Yudego
4 BARIKUA	■ Oruesagasti

2024 urte gutzian, gauzez:

Lekunberri Alberdi, Mikel Isasi, 31 (Eibar)
943 204 230

■ Fernandez:	■ Soto:	■ Oruesagasti:
Herriko	Rekalde, 1	Kalebarren, 9
Enparantza,4	(Soraluze)	(Soraluze)
Garagartza	943 751 638	943 751 384
(Mendaro)		
943 756 142		



Lucia Arrieta Etxaniz

2024ko irailaren 25ean hil zen, 88 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Ez zaitugu inoiz ahaztuko,
ez zaitugu inoiz galduko
gure bihotz barrenean
eramango zaitugu betiko.***

Etxekoak



Sardea eta eskuarea

Anjel Ugarteburu



Esaera zaharra da Euskal Herriko baserriar askoren artean. Nik entzun izan nuen gurean behin baino gehiagotan: *“Mundu honetan sardea eta eskuarea, biak, erabiltzen ikasi behar da”*; sardea zabaltzeko eta eskuarea batzeko. Sardea eta eskuarea (horca y rastrillo). Zabaltzen baduzu, izango duzu jasotzeko edo biltzeko aukera ere: moztu berri den belar hezea sardeaz zabaldu eta gero, eguzkiak gozatutako belarra batu edo bildu.

Gizarteko harremanetan ere halatsu. Hartu eta emanez sortzen da harremana. Aberatsago eta ahaltsuago egiten zaitu harremanak. Soberan duzuna eman eta eskas duzuna beteta lortzen da osotasuna. Erderazko *“relación”* hitza baino zehatzagoa da euskarazkoa. Euskara gutxi erabili ohi dutenek ere erabiltzen dute: *“No tengo hartueman con esos”*. Hitz horrek berez duen indarraren seinale.

Auzolaneko jardunean ere horixe egiten zen gure baserrietan eta antzeko zerbait gertatzen da, neurri batean, kaleko etxeetako komunitateetan ere. Elkarbizitzak elkarlana eskatzen du maila guztietan. Etxegintzan, bidegintzan, gari eta belar-lanetan...


Gero badira harreman horietan emateko orduan xuhurrak edo zekenak direnak eta hartzeko beti prest daudenak; eskuzabalak eta zikoitzak eta, kasu batzuetan, besteen bizkarretik abantailaren bat lortu nahi dutenak. Ordaintzeko orduan lerroaren azken mugan jartzen direnak.

Txerri-erregaluak dira aspaldi baserriarren arteko harremanen adibide. *“Odolkiak (odolosteak) ordainetan”* esaera ere ezaguna da. Odolosteak ez dira luzaro jan gabe edukitzeko jakiak eta horregatik ere banatzen ziren auzoan, alferrik gal ez zitezen. Dena den, gurean odolosteak ezezik solomoa eta urdaia ere zabaltzen ziren. Hartu ere halaxe.

Azkuek, bere *Euskal Herriaren jakintza* liburuan biltzen dituen esaera bitxi

batzuetan ederto erakusten du betiko kontua direla harremanetan gertatzen diren ezberdintasunak; batzuk eskuzabal eta beste batzuk zeken. Hala jasotzen du zikoitzaren izakera *“baserri horretatik ez da kerik be irtetzen”* edo, beste nonbait irakurri izan dudanez *“horrek etxok korroskadarik be botatzen”*.

Ezaguna da Amezketako Pernandok auzoko baserriar xuhur bati egin zion jukutria. Auzoan txerri-oparirik banatu nahi ez eta txerria gaez hiltzea pentsatu zuen. Fernando adi egon zen eta, ohi denez, txerri hil ondoren sutu zutenean, azkar joan zen sakristauaren etxera kanpaiak jotzeko eskatzera. Ezkutuan egin nahi eta herri guztia atarian sua itzaltzeko prest.





Maria Dolores Arrizabalaga Irasuegi

2024ko irailaren 21ean hil zen, 88 urte zituela.

*Aixolako dama!
Bizitza aldapatarren inguruan egin arren,
Aramaixo beti bihotzean eraman dabana.
Zure argixe itxungi da,
baina ez zaitugu sekula ahaztuko, AMA-AMAMA.*

Etxeakoak



Jauregi Txiki, 1936




I. URTEURRENA

Pedro Maria Alvarez de Pablo

2023ko irailaren 26an hil zen, 65 urte zituela.

Ez agurrik, ez adiorik; gero arte bakarrik.

Kuadrillako lagunak



I. URTEURRENA

Pedro Maria Alvarez de Pablo

2023ko irailaren 26an hil zen, 65 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da,
domekan, irailaren 29an, 11:00etan,
Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Joango zaretenoi, alde zurretik eskerrak.


***Ez zaitugu inoiz ahaztuko,
ez zaitugu inoiz galduko,
gure bihotz barrenean
eramango zaitugu betiko.***

Etxeakoak eta familia





Eskertzak eta urteurrenak

Barren astekarian eta barren.eus webgunean.

 **943 743 704 / 943 744 112**

 **688 769 657**

 **barren.publi@elgoibarkoizarra.eus**

 **Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk**



